

JOSEBA A. GARAIALDE jna.

Gasteizen, 2000ko urtarrilaren 25ean

Agur:

Zure galdera bat jaso dugu *-na* atzizki distributiboaren erabilera bati buruz. Zuk diozunaren arabera, *bana*, *bina*, *hiruna* bezalakoen ondoan (*hiruna liburu oparitu dizkigute*), gaitzestekotzat ematen duzu *husna*-ren kasuan.

Gramatika batzordea zure iritzi berekoa da eta inongo tradizioirik ez duen forma hori gaitzetsi egiten du.

Badira horren ondoan beste egitura batzuk, kirol-lehiaketetarako adibidez egokiagoak direnak. Adibidez,

Hutsean gelditu zen partida.

Huts eta huts egin zuten Errealak eta Alavesek.

Zure galderari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

Jesus Mari Makatzaga,

Gramatika batzordeko idazkaria